

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure gimnasioa martxan jartzeko eta bere funtzionamendua egokia izateko, hauek dira identifikatu ditugun beharrezko baliabide nagusienak:

- **Baliabide fisikoak:** Gimnasioan egiten diren jarduera nagusietan makinaren beharra dago, horregatik kontsideratu dugu eta hau ezinbestekoa dela proiektuan. Hainbat makina edukiko ditugu gure gimnasioan, hala nola, mankuernak, pisuak, diskoak, banda elastikoak, sokak, errusiar pisuak edo kettlebells, medikuntza-pilota, fitball, pausoak, jumping box edo plyo box, zinta, bizikleta eliptikoa, arraun-makina, polea-makina, abdominalak egiteko bankua. Hauen kalitatea eta mantenua oso garrantzitsua izango da.
- **Baliabide intelektualak:** Anatomia eta gorputzaren osasunarekin zerikusia duten arlo desberdinei buruzko ezagutzak ezinbestekoak dira. Negozioan lan egiten duten pertsona guztien jakin behar dute erabiltzailek izan dezaketen edozein zalantza edo gomendioari erantzuten. Makina bakoitzaren erabilpena nola izan behar den eta zertarako den.

Gure kasuan bostok, formakuntza bat jaso dugu arlo hauetan proiektuarekin hasi baino lehen eta gurekin lan egingo duen edozein monitorek ere ikastaro bat jasoko du lanean hasi aurretik.

- **Giza baliabideak:** Bakoitzak funtzio bat izango du gure gimnasioan, hau da, guk ere lan egingo dugu bertan. Gure proiektua denez, bakoitzak gure ahalegin guztiak eta esfortsuak egingo ditugu arrakasta izateko. Hau da bazkide bakoitzaren eginkizunen banaketa:

Uxue enpresaburua izango da. Bera, negozioaren kudeaketaz arduratuko da.


Bea zerga eta kontabilitate aholkularitza izango da. Bera diruaz administratzeaz arduratuko da, hau da, gimnasioko kontuak ondo doazen ala ez ikusiko du.

Ane idazkaria izango da. Bera, bisitei eta hornitzaileei arreta ematea, abisuak idaztea eta korrespondentzia kudeatzea, gimnasioko instalazioetako sarreraren kontrola, kontratatutako beste zerbitzu batzuk gainbegiratzea eta enpresari gorabeheren berri emateaz arduratzen da.

Claudia erosketa eta ekoizpenaren kudeaketaz arduratzen da. Bera, kudeatzen ditu hornitzaileak zentralki, planifikatzen du, hornitzaileekin akatsak saihesten ditu, kostuak kontrolatzen ditu...

June negozio-estrategiak eta produktu osagarrien salmentaz eta zerbitzuen kudeaketaz arduratuko da. Gimnasioan salgai ditugun produktuen hornikuntza eta salmenten ardurua.

izangi du eta baia gimnasioaren zerbitzuen eskaintzaren antolaketaz.



- **Finantza-baliabideak:** gure enpresa sortzeko diru kantitate handia behar dugu, zehazki, 1.000.000€, beraz, diru hau lortzeko, bakoitzak 40.000€-ko ekarpenba egingo du, eta gainontzekoa mailegu baten bitartez izango da. Banco Santander emango digu mailegua eta 25 urteetan itzultzeko epea dugu, %2-ko interesarekin. Finantza baliabide hauek lortzea ezinbestekoa da negozioa aurrera eraman ahal izateko.